

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/027

Izenburua: ESKOLA ERAIKUNTZEN PROBINTZIA BATZORDEA

Datak: 1951-1972

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 1.582 instalazio unitate

Sortzailea: ESKOLA ERAIKUNTZEN PROBINTZIA BATZORDEA

Erakundearen historia:

Eskola eraikuntzei buruzko 1953ko abenduaren 22ko Legeak xedatzen zuenez, probintziako hiriburu bakoitzean eskola eraikuntzen probintzia batzorde bat eratu beharra zegoen, Hezkuntzako Probintzia Kontseiluan sartuko zena. Nafarroan, Hezkuntzako Batzorde Nagusiari zegozkion probintzia batzorde horren eginkizunak, eta, probintzia horretan irakaskuntza maila horri zegokion araubideak indarrean jarraituko zuenez —Lehen Hezkuntzari buruzko 1945eko uztailaren 17ko Legeak bere azken xedapenetako laugarrenean ezartzen duen moduan—, komenigarritzat jo zen, erakunde eskudunei kontsulta egin ondotik, Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren araubide berezira egokitzea Nafarroako Eskola Eraikuntzen Batzordearen antolaketa. Hari jarraituta, Nafarroako Eskola Eraikuntzen Batzordea antolatu zen, Hezkuntza Nazionalako Ministerioaren 1955eko maiatzaren 3ko Aginduaren bidez. 1954ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez arautu ziren eskola eraikuntzetako probintzia batzordeen jarduna eta irakasleentzako eskolak eta etxebizitzak eraikitzeako eskaerek bete beharreko prozedurak. 1956ko uztailaren 17ko Legearen bidez, zorra jaulkitzeko baimena eman zen, eskola eraikuntzen bost urteko plan baterako. Lege horrek, bosgarren artikuluan, erakunde autonomoen izaera aitortzen die eskola eraikuntzen probintzia batzordeei eta finantza eta administrazio autonomia ematen die. Hala ere, batasun irizpide bati erantzun ziezaioten, 1957ko otsailaren 22ko Dekretuaren bidez Eskola Eraikuntzen Batzorde Nagusia sortu eta probintzia batzordeen funtzionamendua antolatu zen. 86/1964 Legeak eskola eraikuntzei buruzko 1953ko abenduaren 22ko Legea aldatu zuen. Eskola Eraikuntzen Batzorde horren aurrekaria Eskola Eraikuntzen Probintzia Batzordea da, 1928an eratua. 1924ko Udal Estatutuan ezarri zenez, udalak lokal egokiak jartzera derrigortuta zeuden beren udal mugartearen ziharduten eskolei, eta, horretarako, maileguak hitzartzeko aukera zuten Gizarte Aurreikuspeneko Institutu Nazionalarekin eta haren kutxa laguntzaileekin. 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege Dekretuaren arabera, Udal Estatutu hori Nafarroari aplikatzeko oinarriak ezarri ziren. Nafarroako Udal Administrazioarako Erregelamenduak, 1928ko otsailaren 3an onartuak, 76. artikuluan ezartzen duenez, udalak eta kontzejuak behartuta zeuden eskolentzako lokal egokiez hornitzera eta haiek egoera onean mantentzera.

1928ko uztailaren 10eko Errege Dekretuaren bidez ezarri zen probintzia bakoitzean eskola eraikuntzen batzorde bat eratuko zela. Nafarroakoa 1928ko abuztuan eratu zen. 1948ko apirilaren 26ko Dekretuaren bidez, Estatuaren eta Foru Diputazioaren arteko hitzarmen berezi bat baimendu zen eskola eraikinak egiteko. 1949ko apirilaren 29ko Dekretuaren bidez, eskola eraikuntzei buruzko araudi berria argitaratu arte, eguneratu egin zen Ministerioak eskola eraikuntzetarako eman zuen zenbatekoa. Eskola eraikuntzei buruzko 1953ko abenduaren 22ko Legea onartzean, araudia eguneratu egin zen eta ordena politiko berrira egokitu zen gai horri buruzko legeria.

1967ko otsailaren 13ko Aginduaren bidez, Batzorde Nagusiaren eta Probintzia Batzordearen osaera zabaldu zen; hala, haietako bakoitzean Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Ordezkaritza Nazionalaren ordezkari bat sartu zen. Abenduaren 31ko 3855/1970 Dekretuaren bidez, Hezkuntza eta Zientzia Probintzia Ordezkaritzaren antolamendua arautu zen, eta,

bederatzigarren artikuluan, Eraikuntzako Bulego Teknikoa sortu zen, ardura hauek betetzeko: obrak zuzendu, ikuskatu eta zaintzea, lursailak aztertzea eta eraikinak kontserbatu eta konpontzea.

Otsailaren 4ko 260/1971 Dekretuaren bidez, Eskola Eraikuntzen Batzordeak izena aldatu eta Eraikuntza, Instalazio eta Eskola Ekipamendu Batzordea izena hartu zuen. 1990ean, hezkuntzari buruzko eskumenak eskualdatu zitzaizkion Nafarroari, abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuaren bidez. Haren ondorioz, Foru Komunitateak bere gain hartu zuen "eraikuntza berrien proiektuak egitea, gainbegiratzea, onartzea, kontratatzea eta egikaritzea, zeudenak eraberritzea, handitzea edo hobetzea, bai eta ikastetxe publikoei zegokien hornidura eta ekipamendua ere".

Funtsaren antolamendua:

027.01 GOBERNUA

027.01.01 Batzordearen aktak

027.02 ADMINISTRAZIOA

027.02.01 Xedapen ofizialak

027.02.02 Maisu-maistrentzako etxebizitzetako buruzko estatistika

027.02.03 Korrespondentzia

027.02.04 Kontu korronteen liburuak

027.02.05 Inbertsioei buruzko hiruhileko txostenak

027.03 ZERBITZUAK

027.03.01 Eskola eraikuntzen planak

027.03.02 Dirulaguntza jaso duten obren espedienteak

Sarrera baldintzak:

Dokumentazio hori eskuratzeko epeak 331/2011 ebazpenaren bidez onartu ziren, eta [ALDIZKARIAren 178. zenbakian, 2011ko irailaren 8koan, argitaratu ziren](#)